

Soldadu bakezalea

'PEACEFUL SOLDADUA'

Izenburua. 'Peaceful soldadua'. Jatorrizko izenburua. 'Private Peaceful'. Egilea. Michael Morpurgo. Itzultzailea. Mirentxu Larrañaga Sueskun. Argitaratze urtea. 2006. Argitaletxea. Alberdania.

A. IRIZAR

GERO eta ohikoagoa bihurtzen ari da euskal editoreen artean liburu argitaratu berri samarrak aukeratzea beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekartzeko. Batzuetan, inguruko erdaretara ere itzuli gabe egoten dira gainera; hemen hizpide dugun hauxe bera frantse-sera itzulita dago, baina ez dago oraindik gaztelaniaz irakurtzeko aukerarik. Michael Morpurgo idazle ingelesaren Peaceful soldadua ora-

in lau urte argitaratu zen Britainia Handian, eta bai kritikak eta bai irakurleek oso harrera ona egin zioten. Gure soldadu bakezaleak -peaceful hitzak ingelesez bakezale edo baketsu esan nahi baitu- zenbait sari garrantzitsu ere irabazi ditu, eta, horrela, ez da harritzekoa idatzi dituen dozenaka liburuetatik obra hau Morpurgoren beraren kuttu-netakoa izatea.

Liburuaren azala ikusita eta Alberdania argitaletxearen Narrazioa sailean dagoela kontuan hartuta, irakurleak beste liburu mota bat espero dezake agian. Peaceful soldadua, ordea, gazte literatura izeneko horretan sailka genezake, eta halako bildumetan argitaratu da beste hizkuntza batzuetan. Beharbada, egokiagoa izan zitekeen Ostiral sailean-edo argitaratzea;

izan ere, argitaletxeak berak sail horren azalpenean esaten duenez, helduen eta gazteen arteko zubi diren fikzio lanak biltzen ditu sail horrek.

Horixe islatzen da, besteak beste, liburu honetan; alegia, haurtzarotik gaztetasunerako eta heldutasunerako bidea. Tommy Peaceful izeneko mutil gaztea dugu narratzailea. Nekazaritza giroko herrixka ingeles batean jaioa, han bizitakoak gogoratzen ditu lehen-dabizi: gertakari gozo eta mingotsak, alaiak eta tristeak, baina, betiere, halako era idilikoan aurkeztuak. Eta gero, berriz, gerrako gorabeherak hartzen ditu hizpide, Lehen Mundu Gerrakoak hain zuzen. Baina gorabehera eta bizi-pen horien kontaktak ere halako abentura kutsua duela esango

nuke, eta hori nolabaiteko oztopo gertatzen da kontatutakoen bere-tako lazarritasunaz erabat jabetzeko. Ez dakit, ordea, hori akatsa ala bertutea den; izan ere, agian, irakurle helduari laua eta xehegia gertatzen zaiona gozagarri gertatuko zaio irakurle gazteari.

Mirentxu Larrañagak itzulpenean erabilitako euskarari dago-kionez, bestalde, gaiaren trataerari buruz esan berri duguna errepika dezakegu beharbada, baina, oraingoan, alderantziz: irakurle helduarentzat gustagarri dena -lexikoa, esapideak...- trabagarri gerta dakiok, apika, irakurle gazteren bati. Hala ere, ongi irakurtzen den liburua dugu, eta irakurleak, bai, euskara aberatsa aurkituko du, baina koska gaindiezinik ordea ez.